EREÑOTZUKO IRRINTZI TABERNAREN ZERBITZUA USTIATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, PROZEDURA IREKI BIDEZ

AURKIBIDEA

01. PROIEKTUAREN XEDEA

02. TABERNA ZERBITZUAREN KOKAPENA

03. TABERNA ZERBITZUAREN USTIAKETA

04. TABERNAN GUTXIENEZ ESKAINI BEHARREKO ZERBITZUAK

05. INSTALAZIOAK, ALTZARIAK ETA TRESNAK

06. GARBIKETA LANAK

07. AUZOKO INFORMAZIO PUNTUAREN KUDEAKETA

08. USTIAPEN KONTUAK AURKEZTEA ETA KONTRATUAREN JARRAIPENA

1. PROIEKTUAREN XEDEA

Ereñotzuko Irrintzi taberna zerbitzuaren ustiapena da kontratuaren xede nagusia, baina honekin batera beste hauek ere:

- Auzoko informazio puntua.
- Frontoiko aldagela eta komun publikoen garbiketa.

2. TABERNA ZERBITZUAREN KOKAPENA

Ereñotzu bailara 3 (Airosa etxea) kokatua dago. Eraikinaren beheko solairuan dago taberna, eta sukalde, jangela, biltegia, komunak, terraza estalia eta estali gabea ditu.

Taberna, zerbitzua emateko prest eta martxan dago, III. Eranskinean jasotako inbentarioan zehaztuta dauden elementuekin.

3. TABERNA ZERBITZUAREN USTIAKETA

Zerbitzu horren eremuak honako hauek hartzen ditu: Irrintzi taberna eta inguruko terraza estali eta estali gabea. Aipatu guneak esleipendunak eta Ereñotzuko Auzo Udaleko batzarrak zehaztuko dituzte elkarren artean eta kontratuak dirauen bitartean aldatu ahal izango dituzte ados jarrita.

Era berean, eremu horietatik kanpora, esleipendunak finkoak ez diren makinak eta altzariak jarri ahal izango ditu, une zehatzetan taberna gisa ustiatzeko, esleipendunak hala eskatu eta Ereñotzuko Auzo Udaleko Juntak eskaera onartzen badu.

Taberna zerbitzua honako baldintza hauek errespetatuz eta beteaz kudeatu beharko du kontratistak:

A.- Jarduera jarri eta garatzeko beharrezkoak diren baimen eta lizentziak lortzea.

B.- Zerbitzuak hitzartutako jarraikortasuna izatea.

C.- Zerbitzua taxuz eskaintzen dela ziurtatzea, horretarako dagozkion jarraibideak edo aginduak eman ahal izango dituelarik. Nolanahi ere, aparteko premia edo beharra dagoenean, Auzo Udalak berak esku har dezake zerbitzuaren mesedetan.

D.- Taberna-jatetxearen barruan ordena eta bizikidetza egokia zaintzea, lokalaren eta altzarien egoera eta instalazioen funtzionamendua kontrolatzea, eta Auzo Udalari edozein ez ohiko gai edo gertakari jakinaraztea.

E-. Besteei eragindako kalteak ordaintzea.

F.- Kontratatutako zerbitzua ematea, kontratistarekin zerikusia duten edo ez duten gorabeherak (langatazkak eta, oro har, zerbitzuaren betiko funtzionamenduari eragin diezazkioketenak) direnak direla.

G.- Instalazioak, tresnak eta altzariak egoera onean mantentzea eta horiek aurreikusitako xederako erabiltzea. Horrenbestez, egungo ondasunen zerrenda ikuskatu egingo da, kontratista bertan dela eta kontratuak dirauen bitartean zerrenda hori aldatu ahal izango dute bi alderdiek ados jarrita. Ondasunen zerrenda esleipen-kontratuaren III. Eranskin gisa jasoko da.

H.-Kontratua bukatzen denean, instalazioak eta materiala itzultzea.

I.- Langileen eta erabiltzaileen portaera egokia bermatzea. Esleipendunak eta bere langileek behar besteko zuzentasunez erantzun beharko diete jardueraren erabiltzaileei.

J.- Esleipendunak zuzenean gauzatzea jarduera. Esleipendunak kontratua laga ahal izateko edo prestazio jakin batzuk hirugarren batzuekin hitzartu ahal izateko, Auzo Udalaren berariazko baimena izan beharko du aldez aurretik. Baldintza hori betetzen ez bada, kontratua suntsiaraziko da, eta bermea galduko da.

K.- Garatu beharreko jarduerari dagozkion legezko obligazioak betetzea.

L.- Ostalaritzako establezimenduei aplikatu beharreko araudi orokorrean ezarritako egun eta orduetan ireki eta ixtea.

LL.- Urari, gasari eta argindarrari dagozkien gastuak eta zerga zein tasak ordaintzea. Zerbitzu hauek bere izenean kontratatu beharko ditu esleipena irabazten duenak.

M.- Esleipendunak eta haren menpeko guztiek elikagai erabiltzailearen arauzko txartela izatea eta elikadura-higieneari buruzko arau guztiak betetzea.

N.- Erantzukizun zibileko aseguru-poliza kontratatzea, besteei eragin diezazkiekeen kalteei aurre egitearren. Aseguratutako kapitala, gutxienez, 300.000 euro izango da. Kontratuak dirauen bitartean indarrean egon beharko du.

** Oharra: Esleipendunak zerbitzurako berak jartzen dituen ondasun edo instalazioen asegurua bere gain hartu beharko du.*

Ñ.- Ereñotzuko Auzo Udalari, plegu teknikoetan jarritakoaren arabera ustiapen kontuak aurkeztea.

O.- Kontratuak dirauen bitartean taberna-zerbitzuan hondatzen diren tresnak konpondu edo ordezkatzea eta garbitzeko tresnak zein produktuak ordaintzea. Makinaria eta instalazioetan matxura bat gertatu ezkero eta matxura erabiltzailearen erabilera desegokiagatik gertatu ez bada, esleipendunak 300€ko frankizia ordainduko du, eta gainerako udalak hartuko du bere gain. Konponketa Auzo Udalak baimenduko du.

P.- Inolako obrarik ez egitea Ereñotzuko Auzo Udaleko Batzarraren berariazko baimenik gabe. Txanpon makinak eta joko makinak jartzea espresuki debekatuta dago. Kartel eta iragarki iraingarririk ez jartzea.

Q.- Zerbitzuari atxikitako guneak garbitzea eta, garbiketaren maiztasun nahiz emaitzari dagokienez, arreta berezia jartzea edatekoak eta jatekoak manipulatzen eta zerbitzatzen diren tokietan.

R.- Zerbitzuari atxikitako gunean dauden komunak behar bezala erabiltzen direnaz arduratzea.

S.- Auzo Udalak izendatutako teknikoek eta ordezkariek edozein garaitan instalakuntzetara sartzeko eskubidea izango dute, egoitzen garbitasuna eta tresneriaren eta elikagaien egoera aztertzeko.

T.- Kontratistak tabernako komunak erabilgarri izango ditu, beharra duen edonorentzat, nahiz eta kontsumorik ez egin tabernan. Betiere, taberna irekita dagoen orduetan eta bezero onarpenen eskubideen ohizko araudi barruan.

U.- Ustiapenaren trukean frontoiko aldagela eta komun publikoen garbiketa egin beharko du esleipendunak.

4. TABERNAN GUTXIENEZ ESKAINI BEHARREKO ZERBITZUAK

Ordutegi eta egutegiari dagokionean, baldintza hauek bete beharko ditu esleipendunak:

a) Astean zehar, taberna egunero ireki beharko du, lanegun oso batean eta goiz batean ixteko eskubidea izango duelarik. Ixteko eguna ezin izango da ostirala, larunbata edo igandea izan. Hileta, herri ospakizun edo honelakoren bat gertatzen den egunetan taberna ireki beharko da, baldin eta ez bada aurrez baimendutako opor aldiko egunetan; eta irekitzen den kasuetan, ixte eguna ospakizun edo gertaeraren aurreko edo hurrengo egunarekin ordezkatuko da.

b) Urtean hogeitamar egunetan itxi ahal izango du oporrengatik eta jarraian ezingo ditu hamabost egun gainditu. Jai egunak Gabonetan, Aste Santuan edo Ereñotzuko ohiko jai eta ospakizunetan ezingo dira egin. Hamabost egun lehenago, asmo honen berri eman beharko dio Ereñotzuko Auzo Udalari.

c) Gutxienez, zerbitzua 10 orduz egongo da irekita astean zehar eta 14 orduz asteburuan.

d) Beste edozein arrazoi dela medio zerbitzuak itxita egon behar badu, 10 egun lehenago asmo honen berri eman beharko zaio Ereñotzuko Auzo Udalari.

e) Sukalde zerbitzua: Gosariak, pintxoak, ogitartekoak, razioak, plater merkeak edo plater konbinatuak, emango dira; bazkalorduetan eta afalorduetan, ogitartekoen nahiz plater konbinatuen gutxieneko karta bermatu beharko da taberna irekita dagoen egunetan. Baita taldeentzako bazkari edo afariak ere. Bezeroekin aurretik adostuz gero eguneroko menua eskeintzeko aukera.

f) Izozki eta litxarkerien salmenta egongo da.

5. INSTALAZIOAK, ALTZARIAK ETA TRESNAK

1.- Zerbitzua ematen hasi aurretik esleipendunaren esku jartzen diren ekipamendu, instalazio, altzari eta gainontzeko tresnen inbentarioa dagokion aktan jasoko da. Bertan egoeraren berri emango da eta bi alderdien adostasuna beharko du.

Halaber, kontratua amaitzen edo hausten denean, akta jasoko da, eta enpresa esleipenduna behartuta dago zerbitzua ematen hasi zenean bere esku jarri ziren ondasunak egoera onean uztera edota berriak jartzera.

Bestela, Auzo Udalak esleipendunak jarritako bermea erabiliko du ondasunak konpondu edota berriak erosteko.

2.- Kontratu honetako bermearen epemugari dagokionean, bi hilabeteko epearen barruan erantzun beharko dio esleipendunak ondasunak egoera onean uzteko edo berriak jartzeko daukan betebeharrari.

6. GARBIKETA LANAK

Zerbitzu honen emakidadunak tabernari dagozkion guneen garbiketa lanak egin behar ditu eta arreta berezia jarriko du janariak edo edariak manipulatu edo zerbitzatu behar diren eremuetan, garbiketaren maiztasunari eta kalitateari dagokionez. Tabernako terraza garbitasun baldintza egokitan mantentzea, terrazako zorua eta toldoa bera garbitzea barne. Gutxienez, urtean bi aldiz garbitu beharko da toldoa.

Zerbitzu honen emakidadunak segidan aipatzen direnak ere garbitu beharko ditu ustiapenaren truke, zerbitzua ematen duen unean, garbiak daudela bermatuz:

- Komun publikoak (egunero garbitu behar da).
- Frontoiko aldagelak (erabiltzen den egun guztietan garbitu beharko da).

G**arbiketa zerbitzuan hobekuntzak**: Ereñotzuko kirol eta aisialdi gune berriko komunaren garbiketa egitea hobekuntza gisa eskaini ahal izango du lizitatzaileak (SPKL 145.7 artikulua). Bere eskaintzaren arabera, kontratuaren parte izatera pasako dira.

7. AUZOKO INFORMAZIO PUNTUAREN KUDEAKETA

Kontratistak Auzo Udalak taberna zerbitzu gunean jarriko duen informazio puntua zaindu beharko du eta erabiltzaileei informazioa erraztu beharko dio, ahalik eta argitasun gehien eskainiz.

Informazio puntuaren kudeaketaren barne izango dira:

- Frontoiko fitxen eta aldagelen kudeaketa eramatea.
- Auzoko ekintzen sarrerak edo txartelak saltzeaz arduratzea eta antzeko zerbitzuak ematea hala eskatzen bazaio.
- Mezu eta pakete bilketa/banaketa zerbitzua ematea.

8. USTIAPEN KONTUAK AURKEZTEA ETA KONTRATUAREN JARRAIPENA

Esleipendunak urteko ustiapenaren kontuak aurkeztu beharko ditu Auzo udalean, urtea amaitu eta lehen hiruhilekoan. Zehazki urteko balantze ekonomikoa aurkeztuko du diru sarrera eta gastuak zehaztuz.

Era berean esleipendunak, Auzo udalak ustiapen kontuen inguruan eskatu diezazkiokeen gainerako informazio edo azalpen eskaerei erantzun beharko die, horretarako emandako epean.

Gutxienez sei hilabetetik behin auzo udalarekin jarraipen bilera bat egin beharko du esleipendunak.